

TREBAKUNTZA 2019-06: KATAFORAK ETA ANAFORAK

Askotan, informazio garrantzitsua asko atzeratzen dugu, eta horrek mezua behar bezala ez ulertzea dakar. Aditzarekin gertatzen da askotan, baina ez bakarrik aditzarekin. Zerrendak ematen ditugunean, adibidez, arazo hori sortzen zaigu.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. **Alkatea, idazkaria, Hirigintzako zinegotzia, langileen ordezkaria eta IVAPeko ordezkaria izango dira epaimahaikideak.*
2. **Gai-zerrendak idatzi, aktak jaso, erreklamazioei erantzun eta jakinarazpenak bidali, **horra zure lanpostuaren zereginetako batzuk.***
3. * **Ondoko hauek** dira gure langaiak: bakarkako interesen gainetik arazoaren ikuspen globala defendatzea, langileriaren batasunaren aldeko lana, kalitatezko informazioa eta gauzak era demokratikoaren bitartez egitea.
4. * *Gainera, alkatea oportetan izango da datorren hilean. **Hau guztia** kontuan izanda, hurrengo bilera aurreratzea erabaki dugu.*
5. * *Udaletxean batzorde bat sortu da. **Aipatutako** batzorde horren lana...*
6. * Arrazoi **hauek** direla medio, erabakia datorren astean hartzea pentsatu dugu.
7. * *Euria iragarri dute biharko. **Hau dela eta**, plazan egitekoa zen kontzertua kiroldegian egin beharko da.*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

* ZERRENDETAN

Zerrenda bat eman behar badugu, kataforak erabiltzea komeni da: **hauek, honako hauek...** Baina, ez gaztelaniatik hartutako **ondoko hauek, hurrengo hau, jarraian datozen hauek...**

*AURREZ AIPATUTAKO ELEMENTU BATEN ERREFERENTZIA

Aurrez aipatu dugun zerbaiti erreferentzia egiteko, **hori, horiek...** erabiliko dugu, eta ez HAU, HAUEK...

AIPATU aditza ere beharrik gabe erabiltzen dugu maiz. Gogoratu euskaraz erakusleak dauzkagula aurreko zerbaiten edo norbaiten erreferentzia egiteko. Bestela, erakuslerik gabe ere joan daiteke: *Udaletxean batzorde bat sortu da. **Batzordearen** lana...*

1. **Honako hauek** izango dira epaimahaikideak: alkatea, idazkaria, Hirigintzako zinegotzia, langileen ordezkaria eta IVApeko ordezkaria.

Honako hauek izango dira epaimahaikideak
Hona hemen epaimahaikideak:

- Alkatea
- Idazkaria
- Hirigintzako zinegotzia
- Langileen ordezkaria
- IVApeko ordezkaria

2. **Hauexek / honako hauek** dira zure lanpostuaren zereginetako batzuk: gai-zerrendak idatzi, aktak jaso, erreklamazioei erantzun eta jakinarazpenak bidali.

Hauexek / honako hauek dira zure lanpostuaren zereginetako batzuk / **Hona hemen** zure lanpostuaren zereginetako batzuk:

- Gai-zerrendak idatzi
- Aktak jaso
- Erreklamazioei erantzun
- Jakinarazpenak bidali

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

3. **Hauexek** dira gure langaiak: bakarkako interesen ginetik arazoaren ikuspen globala defendatzea, langileriaren batasunaren aldeko lana, kalitatezko informazioa eta gauzak era demokratikoaren bitartez egitea.

Hauexek dira gure langaiak / **Hona hemen** gure langaiak / **Arlo hauek** landuko ditugu:

- Bakarkako interesen ginetik arazoaren ikuspen globala defendatzea
- Langileriaren batasunaren aldeko lana egitea
- Kalitatezko informazioa ematea
- Gauzak era demokratikoaren bitartez egitea

4. Gainera, alkatea oportetan izango da datorren hilean. **Hori guztia** kontuan izanda, hurrengo bilera aurreratzea erabaki dugu.

5. Udaletxean batzorde bat sortu da. **Batzorde horren** lana...

6. Arrazoi **horiek** direla medio, erabakia datorren astean hartzea pentsatu dugu.

7. Euria iragarri dute biharko. **Hori dela eta**, plazan egitekoa zen kontzertua kiroldegian egin beharko da.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699